



EBAZPENA, 2023KO OTSAILAREN 3KOA, HEZKUNTZA SAILAREN KUDEAKETA EKONOMIKOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ESKOLA-GARRAIOKO SALBUESPENEZKO BAIMENAK ARGITARA EMATEN DIREN

Maiatzaren 26ko 69/2015 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari -garraioaren arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari- buruzkoak, azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuak eta irailaren 28ko 217/2021 Dekretuak aldatu zutenak, 6.2 e) artikuluan ezartzen du salbuespenez, garraioa erabiltzeko behin-behineko baimena emango dela ikastetxearen kokapena dela-eta joan-etorriak egiteko zailtasun bereziak dauden kasuetan, eta zonan dagoen hezkuntza-eskaintza kontuan hartuta, eta horretarako ez dela eskatuko 5. artikuluko c) letran aipatzen den distantzia-baldintza betetzea.

Eskola-garraioaren jarraipen-batzordeak, 2023ko urtarrilaren 25ean egindako bileraren ondoren, berretsi egin ditu behin-behineko baimena behar duten eskaerak, eta, beraz, bidezkoa da eduki horien berri ematea.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Agintzea garraio-publikoa erabiltzeko salbuespenezko baimenen zerrenda (eranskinean zehazten dena) www.euskadi.eus webgunean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz,

Ane Urkiola Alustiza
KUDEAKETA EKONOMIKOKO ZUZENDARIA